

KAPITALAREN MINTEGIA

6. SAIOA

LAUGARREN ATALA

XIII. KAPITULUA. MAKINARIA ETA INDUSTRIA HANDIA

Lehen liburukiaren XIII kapituluaren, Marxek makinaria handia ekoizpen prozesuan txertatzeaz hitz egiten digu, eta honen barruan, fenomeno honek ekoizpen kategorien eta ekoizpenaren barruko aktore ezberdinen arteko harremana nola eragiten duen. Kapitulu honetan, ekonomi kategorien abstrakzioaz gain, historiaren eta soziologiaren erabilera ere egiten du Marxek, garaiko iturri ezberdinak (txosten parlamentarioak, ekonomi-txostenak, inspektzio-komite ezberdinak eta abar) iturri gisa joz.

Beraz, kapitulu hau baliagarria zaigu halako helburu hauek betetzeko: a) Makineriaren eta kapitalaren sorkuntza-prozesuaren arteko harremana ulertzeko; b) merkantziaren zein kapitalaren oinarritzko ezaugarrien ulermena ezagutzeko; d) makinariak langileen bizitan duen eragina aztertzeke.

Hasi aurretik, bego esatea makineriaren txertatzeak batez ere gainbalio erlatiboaren kontzeptuarekin lotuta dagoela, hau da, lanaldia murrizteak eta soldata igoerak berez ez dakarrela esplotazio-tasa murriztea, hau da, langile batek bere lanaldian gainlana, edo lan besterendua proportzio handiagoan (bere soldatarendako lanerako) egin dezakeela. Beste alde batetik, Marxen kapitalaren lehen liburukiaren lehen tomoarekin loturik, ekoizpenerako Beharrezko Denbora Sozialarekin du lotura makineriaren txertatzeak, izan ere, makineriak honen murriztea baitakar (beraz ekoiztiko produktuen ale bakoitzak balio magnitude txikiagoa izatea).

Marxek kapitulu hau zazpi sekziotan bereizi zuen. Nik gutxiagotan bereiziko dut.

Makineria, haren garapena eta kapitalaren balorizazioa

XIII kapitulu hau, John Stuart Mill ingeles liberal ezagunaren zita batekin hasten da, Millen arabera “oso zalantzarria da makineriaren inguruko asmakuntzek jendearen gaineko karga arindu dutenik”. Marxek aipu hau zuzentzen du eta esaten du egia dela makineriak batzuen lana arindu duela eta “alferren kopurua handitu duela”; hau da, Millen aipua zuzena dela soilik “besteren lanaz elikatzen ez diren jendeaz”, hau da, langileez soilik ari bada.

Historia aldetik, “tresna” –artisautza-ekoizpenari lotutakoa- eta “makina” ez da gauza bera, eta ikuspuntu honi atxikitzen zaio Marx, nahiz eta, garai horietan, “Matematikariek eta ekonomistek” (Wilhelm Schulz da adibide bat) bi gauzak *kualitatiboki* parekatu; hau da, “tresna” eta “makina” bereziten duena, azken hauen arabera, “konplexutasuna” soilik zatekeen, “tresna” makina bakun bat soilik izango zatekeen, eta “makina” tresna konplexu bat, biak linealtasun bereko bi etapa ezberdin izango bailiran. Marxen arabera ez du balio ezta “batek gizaki indarra erabiltzen du, eta besteak gizakiaz besteko indarra”, izan ere, “tresna” askok, adibidez goldeak, animaliak erabiltzen zituzten, eta “makina” moderno asko gizaki indarrak dabilta. Marxek ironiaz dio, “Ikuspuntu hau egiazkotzat joz gero, animaliak lanerako erabiltzea asmakuntzarik zaharretakoa denez gero, makinaria-bidezko ekoizpena artisautza-ekoizpenaren aurretikakoa zatekeen”.

Makinariak ez du baliorik sortzen, Bere balioa produktura lekualdatzen du, beraz “makinariaren ekarpena” balioaren zatiki bat da. Hala ere, hemen Marxek nolabaiteko ezberdinketa egiten du, zian

ere, beretzat, makinak ez du soilik lanean eragiten, balorizazioan ere eragiten du: ekoizpena eta balorea, bien sorreran parte hartzen du makinak. Makinak ekoizpenera lekualdatzen duen balioa “baitan galtzen du, desgaste moduan”, beraz, balorizazio-prozesuan soilik modu erlatiboan parte hartzen du (ekoizpen prozesuan, erabateko moduan, ordea). Hala ere, makinak zenbat eta iraupen handiagoa izan, zenbat eta gehiago ezberdinduko dira bi aspektuak: produktua denbora gehiagoz egin ahal izango baitu, produktu masa handiagoa egin dezake. Beste alde batetik, makina batek zenbat eta lan gutxiago izan baitan, harik eta balio gutxiago, balio-zatiki txikiagoa lekualdatzen du produktura.

Beraz, gako bat hemen datza, makina bat zenbat era erabilgarriagoa eta eraginkorragoa da, operazio bakoitzean ahalik eta balio txikiena traspasatu produktura; bai iraunkorragoa delako, bai ezinbestean produktu gehiago egiteko gai izango delako (produktu ezberdinak, makina ezberdinak mugiaraziz, baina baita ere produktu masa handiagoa), bai eta hala aurrezten duena askoz handiagoa izango delako makina bera egiten kostatu denaren ondoan¹.

Azken honetan beste faktore bat ere kontuan hartu behar dugu, makina baten motako zenbat eta ale gehiago egin, makina horretako ale bakoitzak galdu egingo zukeen bere balioa, berarengan inbertitutako lan-indarra txikiagoa baita; eta beraz, gaitasun gutxiagoa zukeen balioa ekoizkinengan transferitzeko (hau zeharka manifestatzen den prozesu bat da, hau da, zenbat eta makina gehiago egon kapitalista ezberdinen eskuetan, denek dute euren produktuak merkatzeko aukera, beraz lan sozial beharrezkoaren batz-bestekoa jaitsi egiten da, eta truke-balioa baita. Beraz, makinak ekoizpen bati transferitzen dion balio kopurua, makinaren balio osoarekiko –hau da, desgaste-gaitasun osoarekiko- handiagoa zatekeen; eta beraz, kapitalista bakoitzarena den makinak lana bolumen txikiagoan egingo luke produktua eta produkzioa aurreko egoerarekiko profitagarri).

Makinaria Industri Iraultzaren eragile gisa

Kapitalaren balorizazioaren inguruan, makinaren txertatzeak historikoki produkzio moldeen iraultetan izan duten papera ere aztertu beharra dugu. Marxek banaketa bat egiten du makinaren lan ezberdinen inguruan, makina modernoek alde batetik “Indar motorea ematea” eta bestetik “giza trebetasuna ordeztzea” egin dezaketela esaten duenean. Lehen aldetik, gizakiaren indarra ordeztzen dute, airezko bonba mekanikoek egin bezala. Bigarrenean, lan “zailak” egin ditzakete, harilkatzea bezala, “Mule Jenny” famatuak egin bezala. Marxen arabera, lehen ezaugarria soilik duten makinek, hau da, indarra ordeztzen duten makinek, berez ez dute industri iraultza ekartzen, hobekuntza teknikoak ekar baditzakete ere. Bigarren trebetasuna, hau da, *eraldaketa*-trebetasuna duten makinariak ekartzen dute industri iraultza (beste gauza batzuen artean halako makinek beste makina batzuek lan egin arazi dezaketelako, makina mota ezberdinen arteko lankidetzan ezar dezaketelako -gizakien “lankidetzan oinarritutako lana” imitatuz- eta abar). Honek ezberdintasun bat dakar: lehen langilea prozesu ekoizlerra moldatu behar zen eta hauxe langilera, orain, makinak abilezia hori badu, ez da moldaketa hori eman behar². Prozesu osoa “baitakoa eta baitarakoa, helburu bihur-erartzen da”. Modu honetan, makinariaren produkzioa bera, hau da, ekoizpena hobetzeko bitartekoen

¹ Makinaren eraginkortasuna ez da soilik honen eta honek ordeztu tresnaren arteko balioaren konparaketan oinarritzen, baizik eta baita ere makina egiteko gastatu balioan, eta honek produktuari transferitutako balioa aurreko tresnak (edo langileak) transferitutakoa baino txikiagoa izatean (eta aldi berean aurrezten duen lanarengatik, zeintzuk denbora berean produktu-ale gehiago egitea ahalbideratzen duen).

² Baita ere, fase ezberdinen artean egin beharreko “tarteak” murrizten ditu, edo egin beharreko “tarten” iraupena murrizten du.

hobekuntza (zeina jada produkzioaren parte den) helburu bihurtzen da, eta modu berean prozesuaren baitako izatera pasatzen da.

Balorizazio- eta ekoizpen-prozesuan (lehenean erlatiboki, bigarreanean erabat) parte hartzeko moduari dagokionez ere, ezberdina da tresna soilaren eta makina “Konplexuaren” arteko ezberdintasuna. Lehenari dagokionez, erabilpen eta desgasteari dagokion ezberdintasun diferentzia handiagoa du (iraunkorragoa da), beraz, produktu gehiago egin ditzake (eta gainera bere erabilpen-esparrua handiagoa da, beraz halako “balio transferentziak operazioak” egiteko aukera handiagoak ere baditu, hau da, produktu bereko ale gehiagori transferitu diezaieke balioa).

Makinariaren txertatzeak langile-masarengan duen eragina

Norbaitek uste izan badu makinariaren txertatzeak langile masaren murrizketa ekarri zuela, hau da, makinariak langileak lanetatik kaleratu zituela, Marxen aburuz, oker ari da. Izan ere, kontutan hartu behar dugu makinariak, behintzat XIX mendean (gogoratu behar dugu kapitulu hau historiografikoa ere badela) ez zela halakorik gertatu.

Aurreko sekzioan makinariaren eraginkortasunaz aritu izan gara nolabait, makinariak balioa “lekualdatzean” (transferitzean) eta lan-indarra ordeztean lortzen (edo aportatzen) duen eraginkortasunaz. Edo hobe esanda, halako parametroen arabera neurtu daitekeela haren eraginkortasuna. Kasu honetan antzeko operazio bat egin behar dugu langilearen lan-indarrarekiko. Kontuan izanik kapitalistak ez duela lana ordaintzen, lan indarra baizik (soldata langilearen lan-indarra erregeneratzeko –hau da, langilearen beharrezan asetzeko- ordaindutakoa da), makinariaren eraginkortasuna, makinaren eta *ordeztutako lan-indarraren balioaren* (ez lanaren, ez lan-indarraren) diferentziaren arabera da. Makina produziterakoan kostatutakoa eta ordeztu duena lan-indarraren arteko diferentzia, bi kasu ezberdinetan berdina izan daiteke, baina lan-indarraren prezioa, hainbat faktore dela eta ezberdina denez, kasu ezberdin bi horietan, makinaren balioa ere ezberdina izan daiteke. Marxek aipatutako kasu batzuetan langileak hain diru gutxigatik egiten zuen lan, ezen makinez ordeztea antiproduktiboa zela³.

Zer ondorio praktiko izan zituen makinariaren txertatzeak XIX mendean langileen lan- eta bizibaldintzengan? Lehenik eta behin, muskulu-lana desagertzea, eta nolabait, lan hori kasu askotan lan automatikoaz, bigilantzia-lanaz eta abarrez ordeztea. Kasu horretan, emakumezko eta haur-lana handitu egin ziren, hau da, kapitalak lan gehiago bereganatu zuen, lana aurreztu ordeztu. Lan hau oso gaizki ordaindutakoa zen, eta beraz esplotazioa handitu egin zen, ez murriztu. Soldata, hasieran erabat familia-kategoria zena (soldata batekin familia osoa elikatu), kategoria indibiduala bihurtu zen. Baina beste modu batean, liberalismoaren hipokresia ere aidean uzten zuen. Izan ere, produkzio modu kapitalista, indibiduala zaki, “askatasunean” oinarritu (besteak beste, beste ezaugarriak berdintasuna, jabetza eta utilitarismoa-Bentham ziren, Marxek berak esan moduan), hau da, lan indarra “askatasunean” saltzeko gaitasunean, hemendik aurrera langileak ez zuen soilik bere lan indarra salduko, baizik eta baita ere bere familiako kideena (euren “askatasuna” eta “jabetza” urratuz). Marxek prozesu hau esklabutzarekin konparatu zuen.

³ Beste kasu batzuetan, makinariak “Lan gehigarria” sortu dezake, eta modu horretan langile baten lana hainbeste handitu (makinaria mugitzen), honen lan-indarraren prezioa hainbeste jaisten duelarik, eta beraz langilearentzat ezinezkoa zatekeela makina mugiaraztea. Kasu horretan, onura oso txikia da, izan ere, makinak ez baitu lana ordeztu, eta nahiz eta lan-indarraren balioa ondoratu, produzitutakoak ez duela konpentsatzen (langilearen lan-indarraren balioa jaitsi egin da, baina baita ere langilearen lan-gaitasuna, beraz, ez du lana ordeztu eta beraz baita, ez du lanaz lan erlatiboaren balioa ordeztu).

Marxek prozesu hau deskribatu zuen Ingalaterrako legeei gainezka egiten zien prozesu moduan, izan ere produkzioaren beharrek, Parlamentuak edo bestelako erakunde ofizialek jarritako mugen kontra jarduten baitzuen, modu honetan, produktoreek muga horien kontra protestatuz. Industri Iraultzak Ingalaterrako umeek hilkortasun-tasa deblauki handitu zuen, ez soilik lan-istripuengatik, baizik eta lan egiten ez zuten umeen kasuan ere, gurasoek lan egiteak, umeen ardura galtzea (elikadura, osasuna...) zekarrelako⁴.

Beste alde batetik, jabeek askotan Parlamentuak ezarritako babes- edo hezkuntza-legeei iskin egiteko moduak topatzen zituzten (betiere, beren ekoizpen-interesak bultzatuta): adibidez. Halako legeak betearazteko mekanismoen falta (hau da, “bete ezin daitekeen legearen” edo “gauzatu ezin den eskubidearen” axioma erreal ezaguna gauzatu); kasurako eskola fabrika barruan jartzea, kapitalistak kontratatutako irakasle faltsuekin –kasu askotan irakurtzen ere ez zekitenak-. Honek erakusten du, lanaren eta kapitalaren joera soziala aurrean ezartzen zaion edozein legeren traba hankaz gora botatzeko gai dela.

Beste ondorio bat, lanegunaren luzatzea izan zen, produktu jakinen sorta handi bat produzitzeko denbora sozialki beharrezkoa moztearen ondorioz. Hala alde batetik kapitalaren produktibitatea handitzeaz gain, langilearen bizi-baldintzak ziurtatzeko bere lan handiagoa egiteko beharrezana ere handitu daiteke. Nola lortzen du hau kapitalistak? Alde batetik, esan dugunez, makinaria konplexuak gizakien trebetasunak (eta ez soilik indarra) ordeztzeko gaitasuna dute. Modu horretan, ekoizpena “etengabeko mugimenduan” izateko gaitasuna ere badago. Eta beste alde batetik, makinaren ugaltzeak, nolabait, lehen esan bezala, makinaren balioaren jaitsiera dakarrenez, eta beraz produktuei eransteko balio-transferentzia gaitasuna txikiagoa denez (beste produktore denek ere euren produktuak merkatu dituztenez, lan sozial gutxienekoaren bataz-bestekoa jaitsi egin da, beraz, transferitutako balio-ale bakoitzak makinaren desgastearekiko gehiago suposatzen du), behin behineko abantaila egoera profitatzen du kapitalistak langileak ahalik eta gehien lan egin arazi behar ditu, makinaren “abantaila momentua” ahal den gehiena ustiatzeko⁵. Hala ere, honek nolabait joera kontraesankor bat dakar, izan ere, langile bakoitzaren gainbalioa sortzeko gaitasuna handitzeak, alde batetik lanegunak luzatzeko gaitasuna badu, baiian bete alde batetik “erreserba armada” – langabezia- ere handitu egiten du, langile gehiago lanik gabe aurkitzen baitira.

Puntu honetan pixka bat gehiago luzatuko gara. Izan ere, Marxen arabera, ekonomista burges anitzek (John Stuart Mill ere aipatzen du) makinaren sarrerak eta lana soberan uzteak,aldi berean lan hori beste ekintza edo arlo batzuetan kontratatuzeko kapitala ere askatzen zuen. Marxek honi “konpentsazioaren teoria” deitzen zion. Hala ere, Marxena arabera, teoria hori aizuna da, izan ere, langileak makinez ordezteak, kapital aldakorra kapital iraunkorraz ordezteak soilik dakar. Marxek dio suposatuz langile berriak behar direla makina egiteko eta hauek lana konpentsatu dezaketela, makinak egiteko behar diren langileak, ordeztutako langileek suposatutakoa baino gutxiago dira betiere(edo hobe esanda, makina egiteko erabili behar den lan-indarra edo lan-indarraren balioa, honek ordeztutakoa baino txikiagoa da), bi arrazoiengatik: alde batetik, makina bat behin egiten baita (eta bertatik patrioiak ere gainbalioa ateratzen baitu), eta bigarrenik, makinaz ekoiztutako

⁴ Fenomeno hau nekazalguneetan ere gertatu zen, hauetan industria sartzekoan. Izan ere, gaixotasunen desagertzea ahalbideratu zuten baldintzek, nekazaritza industrialtzea ahalbideratu zuten baita, eta horrekin batera lan-txanda beldurgarriak sartzea. Hau da, lehen gaixotasunez hiltzen ziren umeak orain lanak eraginda hiltzen ziren.

⁵ Marxek aipatu kapitalista batek hala dio: “nekazari batek pala uzten duen bakoitzeko 18 penikeko kapitala alferrik galtzen du. Gure langileetako batek lantegia uzten duenean, 100.000 liberako kapitala alferrik galtzen du”.

produktu-masa, botatako langileek egindako masa baino handiagoa delako, hala lehengai gehiago “galdatuz”, eta modu horretan, beste arloetan ere, produktibitate masa handituz (bestela produkzio trukaketan, lehengaien produkzioak ez luke emango industria produkzioaren hazkundeak exijitzen duena. Hau da, teknika produktibo berriak lehengaien –edo inputen- produkzioan ere sartu behar dira, industriak botatako langileei atea itxiz, edo bertan soldata okerrago batez lan egitera behartuz). Beraz, gainbalioa, zein gainbalio-tasa, zein ekoizpen masa handitu egiten dira.

Teoria horren aldeko beste argudio bat, halako langileak, hau da, soldata baten truke “ekoizle” direnak eta soldata horrekin “erosle” direnak (termino kapitalistetan hitz eginez), lanik gabe geratzen badira, eroste ahalmena jaitsi egingo zatekeenez, lanik topatu ezean merkantzia ezberdinen (lehen beharrak, langileek kontsumitutakoak ohi direnak) salneurria jaitsi egingo zatekeela. Hau Marxen arabera ere aizuna da, izan ere, kaleratutako langileek lana topatzen badute –arlo ezberdin batean, agian harako prestatuta ez dauden arlo batean-, beste arlo batean kapital berri bat sortu delako topatuko lukete lana, ez kapital zaharra –jada makina bihurtutakoa, amortizatutakoa- erreproduzitu delako. Ezta ere salneurrien prezioaren jaitsiera, izan ere, irabazi-tasa handitzearekin batera, kapital berria absorbitzen baita produkzio-prozesuan.

Lanegunaren luzapenaren “ondoko ondorio” bat, intentsifikazioa izan zen. Hau da, laneguna gehiago luzatu ezin zenean, edo jatsi egin behar izan zenean (protestak edo Estatuaren ekintza medio), laneguna murrizten zen garai horietan lana are intentsoagoa izaten zen. Baina oro har, lana beti izango zen, lehen zena baino “eraginkorragoa”: Hau da, modu honetan, *gainbalio erlatiboaren* handitzea dugu makinaria sartzearekin bat⁶. Hemen berriz dugu kapitalaren indarra hau mugatu nahi duten traban aurrean garaitezin.

Ondorioz, Marxen arabera, berez langileen egoeraren okertzearen errua ez da makinariarena (zeinak produktua merkatu eta honen bolumena handitu besterik ez duen egiten), baizik eta honen erabilera kapitalistarena, zeinak era berean lana murrizteko tresna baliagarriak lanaren intentsifikazioaren bidez, esplotazioa handitzeko tresna bihurtu zituen.

Lanegunen luzapenaren zein familiakide guztiak lanean sartzearen beste ondorio bat moralaren galera izan zen, izan ere, familien sakabanaketa (kasu batzuetan kideak lantoki ezberdinetan eta beraz herri ezberdinetan sakabanatzen zirelako, besteetan kide ezberdinek lanean denbora gehiegi pasatzen zutelako), hezkuntzaren galera, eta beraz, ohituren aldaketa.

Beste ondorio bat, fabrikan bertan langileek produktuarekin eta lanarekin zuten harremana aldatzea izan zen. Hau da, esan dugu jada, hainbat aldiz errepikatu baita ere, makinek giza-abilezia ordezkatzeko gaitasuna zutela. Hau da, lehen giza langileek euren abilezia produktuan zuenean ezartzen bazuten, lan-banaketa ahalbideratuz, orain produkzioa bera gizakiaren abileziaz “emantzipaturik”, fabrika barruan banaketa hori desagertu egiten da. Ezberdintasuna “esperientziadun langileen” (helduen) eta “peoi laguntzaileen” (umeen) artekoa izanen da. Honek langile bakoitza ordezgarri egiten du, eta beraz “lan-txanden” sistema ezartzea ahalbideratu zuen. Aldi berean, langilearen lana “errazteak”, “lana edukiaz askatzen du”; eta langilearen lanarekiko besterentzea (alienazioa) errazten, langilea jada ez baita egindako produktuarekin identifikatzen. Praktikan, langileak ordu gehiago pasatzen zituen lan-espazio geroz eta txikiago batean, eta

⁶ Rosa Luxemburgek ondo aztertu zuen gerora fenomeno hau.

berarekiko diziplina ere handiagoa bihurtu zen⁷. Beste modu batean, “etxeko lanaren” baldintzak ere aldatu egin ziren, hauen produkzioa industri handiaz gero eta dependenteago zelarik eta bertako lan-baldintzak fabrika handiekiko gero eta antza handiagoa hartzen zutelarik.

Langileak Industri Iraultzaren aurrean

Marxen arabera, XVII mendean langileek askok asmakuntza berri asko (gehienak “tresnak” ziren oraindik, hau da, indar-aurreztaileak, ez “makina konplexuak” edo gaitasun-egileak) hondatu edo zapuztu zituzten, euren bizi-irautearen kontra zihoazela iritziak. Marxek halako erasoak, “makinariaren” kontra zuzendutakoak “sumindura trakets” gisa jotzen zituen, izan ere ez zituzten “makinaria eta bere esplotazio kapitalistarako erabilera bereizten”, horretarako “denbora luzea behar izan zen” (Marxen arabera, XIX mendean erdialdean etorri zen hori). Hala ere, kontuan izan behar dugu hamarkada batzuek langileen bizi-baldintzak okertu egin zirela makinak txertatzearen bidez.

XIX mendeko 30eko eta 40ko hamarkadetan gosea handitu egin zen, batez ere kotoi langileen artean, non iraultzarik handiena gertatu zen. Ez hori bakarrik, baizik eta makinaria bihurtu zen langileen kontrako mehatxu modu bat (grebak zantzeteko, edo soldaten murriztearekin mehatxatzeko). Ingalaterrako kapitalista askoren arabera, grebak zantzeteko edo zapuzteko beharrezkin bat sartu ziren asmakuntza berriak⁸.

⁷ Marxen arabera, gainera zigorrak ezartzeko gaitasuna handitu egin zen: langileak ordenatuago egoteak eta gainera soldata baten beharrez izateak, “zenbagarriago” egin zituen. Horrela, langileak jotzeko beharrik ere ez zegoen, hauek zigor ekonomikoez edo bestelakoez mehatxatu edo zigortu zitezkeen.

⁸ Barkatuko dit irakurleak baldin eta xakeari buruzko aipu bat sartzen badut: Aaron Nimzowitsch jokalaria daniar-letoniarrak zioen “xakean, mehatxu bat haren exekuzioa baino gogorragoa da” (defendatzailearen jokoa baldintzatzen duelako berarekin neutralizatzeko. Erasotzaileak mehatxua betetzea badu, honekin lortzen duen irabazia, prozesuan defendatzailea baldintzatzearen lortutakoa baino txikiagoa zatekeen). Bistan da xakean baino esparru gehiagotan aplikatu daitezkeen aforismo bat dugula.